




Hotel gaudien maximoa irailean

Hoteletan igarotako gaudiak Urte bakoitzeko iraila. Milakoak




Iturria: Eustat

Eustatek argitaratu duenez, **irailean 748.708 gaudi erregistratu ziren Euskadiko hoteletan, hau da, %2,3ko gehikuntza 2024ko hilabete beraren aldean**. Zifra horrek marka historikoa ezarri du irailerako. Batez besteko egonaldia 2,06 egunekoa izan zen, aurreko urtekoa baino pixka bat handiagoa (2,04 egun).

Industria prezioen igoera irailean

Industria prezioen indizea (IPRI) Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustatek landutako Euskadiko industria prezioen indizea %0,3 igo zen irailean urte arteko tase-tan. Energiaren eta bitarteko ondasunen prezioak %0,9 eta %0,7 jaitsi ziren, hurrenez hurren, eta gainerako taldeak garestitu egin ziren aurreko urtearen aldean. Nabarmentzekoa da kontsumo ondasunen igoera %3,2ra iritsi zela.



Esportazio ez-energetikoen erritmoa mantendu dute

Produktu ez-energetikoen esportazioak Urtarriletik abuztura metatua. Milakoak




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratu duenez, **produktu ez-energetikoen esportazioek %0,5eko hazkunde arina izan zuten 2025eko lehen zortzi hila-beteetan**. Hala ere, aurrerapen horrek ez zuen lortu produktu energetikoen esportazioetan izandako %47,1eko jaitsiera indargabetzea, eta horrek % 3,0ko uzkurdua ekarri zuen aldi horretako esportazio guztietan.

Etxebizitzaren gaineko hipotekek %27 egin dute gora

Etxebizitzaren gaineko hipotekak Urte bakoitzeko urtarriletik abuztura bitartean



Iturria: INE

INEn datuen arabera, **2025eko urtarriletik abuztura bitartean 16.447 etxebizitzaren gaineko hipoteka berri eratu ziren Euskadin, aurreko urteko aldi berean baino %27 gehiago**. Etxebizitzaren merkatuak indarrez egin zuen gora Euriborra 2024ko urtarrileko %3,6tik abuztu honetako %2,1era jaitsi izanaren ondorioz.